

**ALKATETZA
DEKRETUA**

2026 000005515

Espediente-zenbakia: 2026/IDA_DEK0446

**2026 URTEKO SANTA EUFEMIA AZOKAKO TALOEN TXOSNAK JARTZEKO
BAIMENAK ENKANTE BIDEZ ESLEITZEKO ADMINISTRAZIO-BALDINTZA
ZEHATZEN ETA TEKNIKOEN ORRIAK ETA ERANSKINAK ONARTZEA ETA
DEIALDIA ZABALTZEA.****Xedea**

2026 urteko Santa Eufemia azokako taloen txosnak jartzeko baimenak enkante bidez esleitzeko administrazio-baldintza zehatzen eta teknikoaren orriak eta eranskinak onartzea eta deialdia zabaltzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2026ko irailaren 16an, Santa Eufemia baserriaren azoka ospatuko da Lameran eta horretarako BBK-ko etxolak erabiliko dira.

Bigarrena: taloen txosna jartzeko proposamen ugari dagoz, eta beharrezkoa da baimena esleitzea enkante bidez, eskatzaile guztiak beharrezko baldintzak betetzen dituztenean.

Hirugarrena: Kultura eta Hezkuntza Sailak 2016 urtetik aurrera, taloen txosnak jartzeko enkante bidezko prozedura egiten du.

Laugarrena: 2026ko uztailaren 15ean, idazkaritzako AOT-k txosten juridikoa egin du.

Argudioak

Lehenengoa: Jabari publikoaren gaineko baimenei, Administrazio Publikoaren Ondarea arautzen duen 33/2003 Legea – oinarritzko lege moduan barne hartzen dituen artikuluetan soilik- eta Toki Entitateen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen 1372/1986 EDa aplikatzen zaie.

Bigarrena: 2016ko abuztuaren 10ean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako Kalez kaleko salmenta Bermeon arautzen duen Ordenantzak xedatzen duena bete beharko da bai eskaria egiterakoan, baita baimena ematerakoan ere.



Hirugarrena: Baimenaren oinarriak onartu eta esleitzeko ahalmenari dagokionez, Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1.q) artikulua arabera, alkateari dagokio.

Erabakia

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, honako hau erabaki dut:

LEHENENGOA: 2026 urteko Santa Eufemia azokako taloen txosnak jartzeko baimenak enkante bidez esleitzeko administrazio baldintza zehatzen orriak eta plegu teknikoak eta dagozkien eranskinak onartzea eta deialdia zabaltzea.

BIGARRENA: erabaki hau eta dagozkion oinarrien iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Bermeoko Udaleko web orrian oinarriak argitaratzea.

HIRUGARRENA: Erabaki hau Ekonomia Sailari eta Diruzaintzari jakinaraztea.

LAUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran eta Tokiko Gobernu Batzarrean erabaki honen berri ematea.

Oharra: sinadurea eta data orri-oinean .

